ESKUALDEA 2016-06-02 11:29

# Aburuza eta Gaztañaga sagardo onenaren sariaren bila

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sagardo Lehiaketaren XV. edizioaren finala, larunbat honetan izango da eguerdiko 12:00tan, Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Aurten, Gipuzkoako hemezortzi udalerritako hogeita hemeretzi sagardotegik eman dute izena, inoizko parte-hartzerik handiena. Aburuza eta Gaztañaga finalisten artean daude.

6 finalista:

Lehiaketa honek bi helburu nagusi ditu: ekoizpen prozesuan sagardogileak egin duen lanaren balioa nabarmentzea eta botilaratutako sagardoaren kalitatea saritzea, bai ikuspegi organoleptikotik bai analitikotik aztertuta. Sailkapenerako dastatzeak maiatzean egin ziren Fraisoron, eta larunbateko finalerako sei sagardotegi hautatu ditu epaimahaiak:

- Adunako Aburuza sagardotegia.
- Hernaniko Akarregi sagardotegia.
- Astigarragako Alorrenea sagardotegia.
- Hernaniko Altzueta sagardotegia.
- Andoaingo Gaztañaga sagardotegia.
- Aiako Izeta sagardotegia.

Zabaldu albistea:

## Iruzkina Idatzi

**Izena**

Idatzi zure izen abizenak

**Eposta (Datu hau ez da pantailaratuko)**

Idatzi zure email helbidea

**Iruzkina**

Idatzi zure iruzkina

**Sartu irudiko kodea**

1n392

captcha

Bidali

## ESKUALDEA

Aburuza eta Gaztañaga sagardo onenaren sariaren bila

Konfiantzaren pedagogia, Zubimusu ikastolan

Inklusioa antzerkira, Adunan aurre estreinaldia

Truke azoka ekainaren 19an

Zubimusuren urteurreneko ospakizunen amaiera

Jokin Lizeagaren proba ikusgarria

Rikardo Arregiren hitzaldi gogoangarri hura

Txirrinka, Urnietatik Andoainera

Igerilari trebeak

Loatzo eta Adarrako maldatatik Zegama-Aizkorri maratoira



ORMENDI KIROLAK